

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, mugikorra da gehien erabiltzen dugun gailua: egunero daramagu soinean, eta harengandik urrun egoteak nolabaiteko segurtasun eza sortzen digu. Komunikabide huts bat izatetik, dena izatera igaro da; hau da, deiak egiteko gailu bat izatetik, lanerako tresna, kamera, ordulari, linterna, eta abar luze bat izatera pasatu da. Laburbilduz, ezinbestekoa gailua bihurtu da gure eguneroko bizitzan.

Horregatik, ingurunea errespetatuz eta harekin bat eginez, mugikorrek denbora luzeago batez babesteko funda ekologiko bat sortu dugu. Izan ere, Espainian, bakarrik, 20 milioi baino mugikor gehiago xahutzen dira urtero, eta horrek ez digu ez guri ez naturari onik egiten.

Gu, Unai, Maria, Endika eta Miriam gara, Urretxu-Zumarragako Lizeoko ikasleak, eta proiektu honen bidez, mugikorrek ahalik eta denbora gehien irautea lortu nahi dugu, eta horretarako “Air-case” izeneko funda bat asmatu dugu. “Air-case” “air-bag” sistema baten bidez funtzionatzen duen kortxozko funda bat da. Sistema abiaduraren bitartez jartzen da martxan, eta mugikorra erortzen ari den bitartean airez betetako lau zaku ateratzen dira hura guztiz estaliz, kolpea saihestuz. Beraz, mugikorra apurtzea ezinezkoa bihurtzen da edozein egoeratan (duen “air-bag”ak era guztietako marruskadurak ekiditen ditu) eta kutsadura murriztea lortuko genuke.

Babesle hau “Smartphone” guztientzako da, bestela esanda, unibertsala da eta edozeinek erabil dezake, telefono modelo desberdinak kontuan hartu gabe. Gainera, pertsonalizatzeko aukera emango diegu bezeroei, produktua haien gustura diseina dezaten (kolorea aukeratuz...)



Euskal Herriko Enpresa

